



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

56 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Kiolari buruzko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Lankidetzaren hitzarmena, Estatuaren administrazio orokorraren (Barne Ministerioa) eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (Lehendakariaren Departamentua) artekoa, Foru Komunitatearen espere berri bat eraiki eta finantzatzeko (23. or.).

—Lankidetzaren hitzarmena, Administrazio Publikoetako Ministerioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 1996ko abenduaren 23ko 2. akordioari bildutako prestakuntza etengabeko planak garatzeko (25. or.).

#### I SAILA:

##### **Parlamentuko Jarduera:**

—2000ko maiatzaren egindako bilerak (27. or.).

—Biltzarreko Idazkaritzaren Orokorrean 2000ko maiatzaren sartu diren dokumentuen zerrenda (31. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Kirolari buruzko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Kirolari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Kirolari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Kirolari buruzko Foru Lege proposamena**

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA  
Nafarroako kirol-politikaren  
printzipio zuzentzaileak

I. TITULUA  
Administrazio-antolaketa

Lehen atala  
Nafarroako Gobernuako kirol-administrazioa

Bigarren atala  
Toki Entitateak

Hirugarren Atala  
Nafarroako Kirol Kontseilua

Laugarren Atala  
Kirol Erakundeen Erregistroa

II. TITULUA  
Kirol-jarduera

I. kapitulua  
Xedapen Orokorrak

II. kapitulua  
Aisialdi-kirola

III. kapitulua  
Eskola-kirola

IV. kapitulua  
Unibertsitate-kirola

V. kapitulua  
Lehia-kirola

VI. kapitulua  
Errendimendu Handiko kirola

VII. kapitulua  
Kirol-selekzioak

VIII. kapitulua  
Kirol-laguntza pribatuak

III. TITULUA  
Kirol-erakundeak

I. kapitulua  
Xedapen Orokorrak

II. kapitulua  
Klubak edo kirol-elkarteak

III. kapitulua Kirol-taldeak	Lehen Atala Kirolariarentzako Sostengua
Lehen Atala Kirol-taldea	Bigarren Atala Dopatzeari aurrea hartzea
Bigarren atala Eskolako kirol-taldea	VI. TITULUA Kirol-diziplina eta Zehapen-araubidea
IV. kapitulua Kirol-federazioak	I. kapitulua Xedapen Orokorrak
V. kapitulua Kirol Sozietate Anonimoak eta Liga Profesionalak Lehen Atala.- Kirol Sozietate Anonimoak	II. kapitulua Arau-haustek eta zehapenak
Bigarren Atala Liga Profesionalak	III. kapitulua Prozedura
VI. kapitulua Kirol Erakundeei laguntzea	IV. kapitulua Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea
IV. TITULUA Kirol-instalazioak	Xedapen Iragankorrak
I. kapitulua Plangintza	Azken Xedapenak
II. kapitulua Instalazioen Erregistroa	ZIOEN AZALPENA
III. kapitulua Kirol instalazioetarako laguntzak	Espainiako Konstituzioko 43.3. artikulua gortuz- hezkuntza eta kirolaren sustapena politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaileen artean sartu zuen –politika hori gauzatzea botere publikoei dagokie–. Konstituzioak berak aurreikus- ten du, 148.1.19 artikuluan, gai honetan autono- mia erkidegoek eskumenak eskuratu ahal izatea, “kirolaren sustapenaren eta aisialdia behar bezala erabiltzearen” esparruko orori dagokionez kasuan kasuko estatutuak ezarritakoari jarraituz.
V. TITULUA Kirol-arloko prestakuntza, ikerketa eta sostengua	Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, Foru Hobekuntzeko 44.14 artikulua eskumen osoak aitortzen dizkio kirolaren arloan. Bestalde, gaur egun kirola fenomeno sozial eta unibertsala bilakatu zaigu, eta oreka lortzeko bitarteko bat da, gizona nahiz emakumea inguruan daukaten mun- dian integratzeko eta harremanetan sartzeko. Kirolaren ezaugarri berekier pertsonaren garapen integralari eta herritarren arteko berdintasunaren garapenari laguntzen diete. Hori guztia dela-eta, kirola giza jardueraren osagaia da haurtzarotik zahartzarora arte, eta hezibide gertatzen da hala eliteko kirolarientzat nola pertsonaren oreka psiko- fisikorako bitarteko gisa hartaz baliatzen direnen- tzat.
I. kapitulua Prestakuntza eta Titulazioak	Kirol-egiteak azken mende laurden honetan izan duen bilakaera azpimarragarria izan da bene-
Lehen Atala Nafarroako Kirol Eskola	
Bigarren Atala Titulazioak	
II. kapitulua Kirol-ikerketa	
III. kapitulua Kirolariarentzako sostengua eta dopatzeari aurrea hartzea	

tan. Honela laburbil daiteke: aurrerakada nabarmena 70eko hamarkadan, izugarritzakoa 80koan, eta, 90ekoan, indartzea eta dibertsifikatzea. Prozesu azkar horrek kirola eraldatu du, eta herritar gehienengana hurbildu du; izan ere, fase horretan, kirola “zerbitzu publiko” gisa hartua izan da, bai Estatuko Administrazioaren aldetik bai autonomia-erkidegoetako administrazioen eta toki-administrazioen aldetik ere.

Aipatzekoa da ezen, Nafarroaren kasuan, 80ko hamarkadan zehar eta, bereziki, 1986tik aurrera –urte hartan eskuratu baitziren kirol eta gazteriarren arloko eskumenak (urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretua)–, aipaturiko arloetan helburuak eta irizpideak taxutzen joan zirela eta administrazio-egitura bat eman zitzaizela.

Beraz, guztiek onartzen dute kirolak duen garrantzia, herritarren borondatezko jarduera den aldetik, hezkuntzarako tresna den aldetik eta pertsonen garapen harmoniatsuaren garrantzizko osagai den aldetik –pertsonen oreka fisiko eta psikologikoan eta taldearekiko zein taldeen arteko harreman bete-beteak ezartzerakoan eragiten du–. Gainera, bultzada handia jasaten ari den fenomeno sozial, kultural eta ekonomikoa da, bizikalitatearen gorakadaren agergarri eta eskakizun, eta gero eta pertsona gehiagoren berariazko lanbide-jarduera da, espezialitate-multzoa zabala izanik.

Kirola egitearen alderdi guztiek (aisia, osasuna, hezkuntza, lehiaketa, ikuskizuna, lanbide-jarduera eta abar) herritarrengan sortzen duten eskaria dela-eta, erakunde publikoek eta herritarren ekimenak ahaleginak egiten dituzte horrelako nahiei erantzuteko.

Alde batetik, elkartegintza-mugimendu bat sortu da, klub edo kirol-elkarte, talde ataldun eta kirol-federazio anitzetan gauzaturikoa. Bestalde, erakunde publikoek, daukaten eginkizun berezia dela-eta, herritarren igurikapen eta eskubideei erantzuten diete, eta eskatzen den zerbitzua ematen ahalegintzen dira, kirola egitea guztien eskura egon dadin, baldintza demokratikoetan; horretarako, beharrezkoak diren instalazioak, profesionalak eta programak eskaintzen dituzte.

Hori dela-eta, foru lege honek kirol-politikako printzipio zuzentzaile gisa mantentzen ditu honako hauek arreta bereziz bermatzen dituztenak: herri-kirol eta -jokoak, instalazioen plangintza, prestakuntza teknikoak, zientzia-ikerketak, kirol-ezagutarazpena, kirola egiten haurtzaroan hastea eta hori sustatu eta arautzen duten kirol-entitateentzako finantzaketa lehentasunezkoa.

Halaber, araubide ekonomikoari, laguntzei eta kirol-azpiegiturei dagokien guztia arautzen du foru lege honek. Dirulaguntzei eta laguntzei buruzko arau orokorrak sortuz arautuko da Nafarroako Foru Komunitateak ariketa fisikoak eta kirola sustatzeko jarduera, ekintza horietarako funts publikoak efizientziaz esleitzen direla zainduz.

Azkenik, foru lege honek guztiak duen borondate orokorra da beharrezkoak diren ikuspegi guztietatik Nafarroan ariketa fisikoak eta kirola sustatu, ezarri, ezagutarazi, planifikatu, gauzatu eta koordinatzea, bai eta aholkuak ematea ere, helburu nagusia hauxe izanik: errealitate bihur dadila herritar orok bere ahalmen fisiko, intelektual eta moralak garatu eta gauzatzeko duen eskubidea, ariketa fisikoak egiteko eta kirola ezagutu eta egiteko modu erraz eta doakoa izanik.

Oinarrizko xede hori lortzeko, foru lege honek proposatzen du printzipio zuzentzaile batzuk gogoan izanik taxutu dadila kirol-politika.

## **ATARIKO TITULUA** **Nafarroako kirol-politikaren** **printzipio zuzentzaileak**

**1. artikulua.-** Foru lege honen xedea da kirolaren helburuak eta printzipio zuzentzaileak definitzea eta kirolaren araubide juridikoaren eta egituraketa instituzionalaren antolamendua egitea Nafarroako Foru Komunitatean.

**2. artikulua.-** Foru lege honen helburu nagusiak hauek dira: gizarteko maila eta estamentu guztietan jarduera fisikoak eta kirola egin daitezten sustapen, ezagutarazpen, plangintza, koordinazio, gauzatze, aholku-emate eta ezarpen-lanak egitea Nafarroan, herritar orok bere ahalmen fisiko, intelektual eta moralak garatu edo gauzatzeko duen eskubidea benetakoa izan dadin, egin beharreko kirolari egokituriko prestakuntzarako aukera librearen bitartez.

**3. artikulua.-** 1.- Kirola egiteak eginkizun soziala betetzen du, gizakiaren garapena osoa eta orekatua izan dadin lagundu eta haren prestakuntza integrala posible egiten duen neurrian. Horrela, bizi-kalitate hobea eta gizarte-ongizate handiagoa erdiestearen alde egiten du.

2.- Nafarroako Gobernuak, guztiek kirola ezagutu eta egin ahal izateko baldintza eta aukera berak dituztela bermatzeko, honako printzipio zuzentzaile hauek kontuan izanik garatuko du kirol-politika:

a) Ariketa fisikoaren eta kirolaren esparruko hezkuntza eta jarduera hezkuntza-sistema oroko-

rrean sartzea, maila eta arlo guztietan, bai eta hezkuntza berezian ere.

b) Kirol-elkartegintza sustatu, babestu eta arautzea, bere agerpen guztietan.

c) Kirol-kudeaketa toki-entitateek kirolaren esparruan dauzkaten eginkizun berekiekin koordinatzea, eta entitate horien ekintzei babesa ematea.

d) Pertsona ezinduei eta gizarte-sektore behartsuenei zuzenduriko kirol-hezkuntzako eta gorputz-hezkuntzako programa bereziak taxutu eta burutzea, horiek guztiek erraztasun eta aukera gehiago izan ditzaten kirola egin eta gorputz-hezkuntza izateko.

e) Kirola esparru guztietan sustatzea eta kirola egiteko bitartekoak eskaintzea, bizi-kalitate hobea eta gizarte-ongizate handiagoa erdietsi ahal izateko.

f) Emakumearen kirol-arloko berdintasunari eta emakumea maila guztietan kirola egiten hasteari laguntzen dioten baldintzak sustatzea.

g) Ariketa fisikoa eta kirola ohitura osasungarri gisa sustatzea.

h) Lehia-kirola eta errendimendu handikoa kirol-federazioekin eta gai horretan eskudun diren beste entitate batzuekin batera sustatu eta planifikatzea, mugimendu olinpikoaren printzipioei jarraituz egin dadin begiratzuz.

i) Kirol-hezkuntza eta -ezagupenak antolatu eta ezagutaraztea, kirol-eskolak sustatzea –kirolariei behar bezalako prestakuntza emateko eta haien trebakuntza adituek emandakoa eta jarraia izan dadin– eta eskola-adinekoren kirol-jarduera berariaz zaintzea, bai irakaskuntza publikoan bai pribatuan.

j) Prestakuntza egokia eta adituek emandakoa izan dezatela kirolaren kalitate teknikoa oro har igo dadila lortzeko beharrezkoak diren teknikari profesionalek, daukaten jakintza etengabe gaurkotuz eta hobetuz maila, alderdi eta espezialitate guztietan.

k) Kirolariei behar bezalako osasun-kontrola egin diezaieten begiratzea eta kirola egiten dutenen osasuna bermatzeko neurririk egokienak hartzea.

l) Instalazioei behar bezalako kontrolak egin dakizkien begiratzea, bai eta segurtasun-neurririk egokienak hartzea, bertaraturiko ikusleek nahiz kirol-jardueraren antolaketarekin zerikusia duten gainerako pertsonen kalterik jasaten ez dutela bermatzeko.

m) Kirola egiten denean ez indarkeriarik ez kirolari arrotz zaizkion moduen bidez lehiaketan emaitzak alda ditzakeen jarrerarik izan ez dadin begiratzea.

n) Kirolari aplikaturiko zientzietan ikerketa garatzea, kirolaren kalitatea hobetzeko.

ñ) Beharrezkoak diren ekipamendu guztiak izanen dituzten kirol-instalazioen sare orekatu bat planifikatu eta programatzea foru-lurralde guztian. Horretarako, ahal den neurrian, mota guztietako ekimenak hartuko dira kontuan, eta kirola egiteko instalazio, ekipo eta materialak modurik onenean erabiltzeko ahalegina eginen da.

o) Toki-korporazioek eta hirigintza-antolamendurako planetan eskumena daukaten departamentuek kirol- eta aisialdi-ekipamenduetarako beharrian sozial eta kolektiboak asetzeko adina lursail erreserbatzen dutela begiratzea. Horretarako, behar diren estandarrak ezarriko dira.

p) Natur ingurunea behar bezala aprobetxatzea egokien diren jolas- eta aisialdi-jardueretarako.

q) Nafarroako herri eta eskualdeetan sustraituriko kultur agerpen tradizioaletan kirola txertatzen laguntzea, bai eta herri-kirolaz eta kirol tradizionalaz jabetzen laguntzen duten ekitaldi guztietan ere.

r) Bertako kirol-modalitateak estatuko eta nazioarteko esparruetan sustatu eta ezagutaraztea.

s) Gorputz-hezkuntzari eta kirolari buruzko informazio eta dokumentazioa bildu, ordenatu, hornitu eta ezagutarazi; bereziki, programei, esperientzia tekniko eta zientifikoei eta ezagutu edo ezagutaraztea komeni den beste jardueren batzuei buruzko ikerketen eta azterlanen emaitzei buruzkoa.

t) Sustapen-lana egitea erakunde eskudunek hobariak, onurak eta tributu-salbuespenak ezar ditzaten kirolaren sustapen eta garapenari laguntzeko.

u) Kirolariak gizarte-aurreikuspeneko sistemen bitartez behar bezala babestuta egon daitezen sustatzea.

**4. artikulua.-** Kirolak Nafarroan izanen duen antolaketa instituzionala administrazio-koordinazioaren, entitate publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzearen eta horietan parte hartzearen printzipioei jarraituko zaie.

## I. TITULUA Administrazio-antolaketa

### Lehen atala Nafarroako Gobernuo kirol-administrazioa.

**5. artikulua.-** 1.- Nafarroako Gobernuo kirol-administrazioari dagokio foru lege honetan ezarritako eginkizunak betetzea eta Estatuko kirol-administrazioarekin, toki-entitateekin eta organizazio sozialekin koordinatzea.

2.- Kirol Institutua izanen da Nafarroako Gobernuo kirol-administrazioko zuzendaritza-, plangintza- eta exekuzio-organoa, eta kirol-esparruko eskumenak esleituak dituen Departamentuari egonen da atxikita.

3.- Bereziki, Nafarroako Gobernuo kirol-administrazioari dagokio foru lege honen erregelamenduzko garapena eta Foru Komunitate osoan kirola sustatu eta garatzeko politikaren jarraibide orokorrak ezartzea.

### Bigarren atala Toki Entitateak.

**6. artikulua.-** 1.- Udalen eskumeneoak dira toki-araubideko legediak esleitzen dizkien kirol-jarduera guztiak.

2.- Aurreko idatz-zatian aipaturikoez gain, Nafarroako udalek honako eskumen hauek izanen dituzte:

a) Euren lurraldean kirol-jarduerari bultzada ematea, bereziki sustatuz hastapen-jarduerak nahiz prestakuntza eta jolasetarakoak arreta bereziko taldeen artean. Kirol-teknikariak kontratatu ahalko dira Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

b) Gizarte-ekimeneko eraikuntza edo horren sustapena, euren udal dermioan kirol-azpiegiturak hobetu eta kudeatzea eta horiek guztiz erabiltzea posible egitea, Foru Administrazioaren eskumeneen kalterik gabe.

c) Kirola egiteko eta kirol-ekipamenduak kokatzeko lursailak erreserbatzeari eta eremuak kalifikatzeari buruzko hirigintza-erabakiak hartu eta horiek bete daitezzen zaindu.

d) Tokiko kirol-instalazio eta -lehiaketetan araudietako segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen direla kontrolatzea.

e) Beste ente publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan aritzea foru lege honetako helburuak betetzeko.

f) Esleitu edo delegatzen zaizkien bestelako eskumenak.

3.- Artikulu honetan aipaturiko eskumenak hobeto erabiltzeko, Nafarroako Gobernuak, bere langileen artetik, kirolearako udal-koordinatzaileak eskuratu ahalko dizkie udalei edo udalen elkar-teei, erregelamenduz ezarritako diren baldintzetan.

**7. artikulua.-** Pertsona guztiek kirola eskura daukatela bermatzeko, udalerrak taldetan bildu ahalko dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko foru legearen babesean izenpeturiko lankidetzak akordio edo hitzarmenen bitartez.

### Hirugarren atala Nafarroako Kirol Kontseilua.

**8. artikulua.-** Nafarroako Kirol Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko kirol-politikari eragiten dioten gaietan aholkularitza emateko, kontsulta egiteko, errekerimendurako eta arloko eztabaidarako organo gorena izanen da, eta Nafarroako Kirol Institutuari atxikita egonen da.

**9. artikulua.-** 1.- Nafarroako Kirol Kontseilua osatuko dute Nafarroako Gobernuaren, udalen, federazioen, unibertsitate-kirolaren, kirol-medikuntzaren, goi-mailako klubien, kirol-klubien eta kirolarien ordezkariak. Halaber, Nafarroako Kirol Institutuak kirol-munduan ospe handia dutenen artean izendatutako pertsona batzuk ere kontseilukide izanen dira.

2.- Nafarroako Kirol Kontseiluaren osaera, izendapen-sistema, jarduera-arauek eta egitekoak erregelamendu bidez ezarritako dira. Nolanahi ere, nahitaezkoa izanen da kontseilu horrek esku hartzea kirolarekin lotutako xedapen orokorren proiektuetan.

### Laugarren atala Kirol Erakundeen Erregistroa.

**10. artikulua.-** 1.- Erregelamendu bidez ezarritako epearen barruan, kirol-erakundeek, euren forma edozein dela ere, Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izen eman beharko dute –erregistro hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpekoa da–; baldintza hori betetzen ez badute, ez dute eskubiderik izanen foru lege honetan ezarritako onurak jasotzeko.

2.- Kirol Identitateko Ziurtagiriaren bitartez frogatuko da kirol-erakunde bat kirol-ondorioetarako aintzat hartua izan dela. Ziurtagiri hori Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroak luzatuko du.

3.- Erregelamendu bidez garatuko da aipaturiko erregistroaren araubide juridikoa eta kirol-erakundeak erregistroan nola sartuko diren.

4.- Kirol-identitatea eta lehiaketa nahiz jardue-  
ra ofizialetan parte hartzeko aukera Nafarroako  
Kirol Erakundeen Erregistroan izen emandako  
kirol-erakundeek baizik ez dute izanen.

5.- Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan  
sartu nahi duten kirol-erakundeen izenak ezin  
izan du errakuntzarik edo nahasmenik eragin era-  
kunde horien izaera eta jarduerari buruz, ez eta  
jadanik izen emandako beste erakunde batzuekin  
nahasteari dagokionez ere.

6.- Erregelamendu bidez ezarriko den  
moduan, Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistro-  
ak bere lurralde esparruan izen emandako kirol-  
erakundeen berri emanen dio Estatu mailako Kirol  
Elkarteen Erregistroari.

## II. TITULUA Kirol-jarduera.

### I. kapitulua Xedapen orokorrak

**11. artikulua.-** Kiroltzat hartuko dira helburu  
gisa antolaturiko edo beste nolabaiteko parte har-  
tzearen bitartez egoera fisiko eta psikikoaren  
adierazpide edo hobekuntza, harreman sozialen  
garapena edo maila guztietako lehiaketetan emai-  
tzak lortzea daukaten jarduera fisikoak.

**12. artikulua.-** 1.- Kirol-jardueratzat hartuko da  
edozein pertsonak egindakoa, nahiz eta federatua  
ez egon edo lehiaketetan ez parte hartu.

2.- Nafarroako Administrazio Publikoek jolase-  
rako eta aisialdirako kirola sustatuko dute, eta jar-  
duera fisiko askea, norberaren kabuzkoa nahiz  
antolatua, erraztuko dute, guztiontzat bizi-kalitate  
hobea lortzeko.

3.- Kultura fisikoa eta kirola sustatzean, arreta  
bereziz tratatuko dira haurrak, gazteak, minusba-  
liatuak eta pertsona edadetuak.

### II. kapitulua Aisialdi-kirola

**13. artikulua.-** 1.- Foru Administrazioak, toki-  
administrazioekin eta kirol-erakundeekin lankide-  
tzan, kirola ohitura osasuntsu gisa sustatu eta  
kirol-jarduera aske eta norberaren kabuzkoa  
erraztuko du, aisialdia modu egokian erabiltzeko  
aukera ahalik gehienak pertsona-kopuru ahalik  
handienari eskainiz.

2.- Beraz, foru lege honen ondorioetarako,  
kirol-jarduera ez lehiatzailetzat hartuko da bizi-  
kalitate eta gizarte-ongizate handiagoa lortzeko  
xede hutsez pertsonak banaka nahiz taldetan egi-  
nikoa.

3.- Foru Administrazioak, Osasunbidea-Nafa-  
rroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, hala eska-  
tzen dutenei osasun-kontrola egiten die, kirolaria-  
ren txartel indibiduala erabiliz; dena den,  
aisialdi-kirola egitearen ondorioen erantzukizuna  
kirola bere borondatez egiten duenarena izanen  
da soilik.

## III. kapitulua Eskola-kirola

**14. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetara-  
ko, eskola-kiroltzat hartuko da ikastetxeek, gura-  
so-elkarteek edo horiekin lankidetzan kirol-erakun-  
deek antolaturiko kirol-ekintza, eskola-umeek  
eskola-orduetan edo ordu horiez kanpo egina,  
unibertsitate aurreko eskolatze-urteetan zehar.

**15. artikulua.-** Eskola-orduetan egiten den  
eskola-kirola askotarikoa izanen da lehentasunez,  
eta ez da lehiaketei soilik begira egiten; horrela,  
bermatu behar da eskola-ikasle guztiek kirol-mota  
ezberdinak ezagutu eta egin ditzatela, euren  
borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera.  
Bultzada berezia emanen zaie Foru Komunitateko  
kirol-mota berekiei.

**16. artikulua.-** 1.- Eskola-orduz kanpoko esko-  
la-kirola egiteko antolaketa-lanak klubek edo kirol-  
elkarteek, federazioek, toki-entitateek edo foru  
Administrazioak egin ahalko dituzte, baita ikaste-  
txeek edo guraso-elkarteek ere; betiere, bi horie-  
kin lankidetzan egin beharko dira.

2.- Eskola-kirolari buruzko programak urtero  
taxutuko dira, eta horien jomuga izanen da esko-  
la-hezkuntza integralaren osagarri izatea, nortasu-  
naren garapen orekatua lortzea eta geroagoko  
adinetan kirola modu jarraian egitea posible egi-  
nen duten heziketa eta baldintza fisiko eta osasu-  
nekoak erdiestea.

3.- Eskola-kiroleko programek minusbaliotasu-  
nak daukaten eskola-ikasleak euren ikaskideekin  
integra daitezen sustatu beharko dute. Hori posi-  
ble ez denean, minusbaliotasunak daukatenen-  
tzat berariazko jarduerak izan beharko dituzte.

**17. artikulua.-** 1.- Haur Hezkuntzak irauten  
duen epean, zero eta sei urte bitartean, zeharo  
debehatuta egonen dira ikastetxeak bertakoak  
ez diren kirol-lehiaketa guztiak. Klubek, kirol-elkar-  
teek, federazioek, toki-entitateek edo foru admi-  
nistrazioak ez dute, inondik ere, Haur Hezkuntza-

ko adina duten kirolariak hartzen dituen kirol-lehiaketarik antolatuko.

2.- Lehen Hezkuntzak irauten duen epean, sei eta hamabi urte bitartean, urteko programetan sartutako kirol-lehiaketek Udaleko Kirol Eskola izena izanen dute, eta, ahal dela, ikastetxeek edo guraso-elkarteek antolatuko dituzte, klub edo kirol-elkarteekin eta federazioekin lankidetzan. Guztiek izanen dute toki-entitateen laguntza esplizitua, bai ikuspegi materialetik bai antolaketarenetik ere.

3.- Bigarren Hezkuntzak irauten duen epean, hamabi eta hemezortzi urte bitartean, urteko programetan sartutako kirol-lehiaketek Nafarroako Kirol Joko izena izanen dute, eta, ahal dela, klub edo kirol-elkarteek eta federazioek antolatuko dituzte, ikastetxeekin edo guraso-elkarteekin lankidetzan. Guztiek izanen dute Nafarroako Kirol Institutuaren laguntza esplizitua, bai ikuspegi materialetik bai antolaketarenetik ere.

4.- Aurrekoa gorabehera, eskola-kiroleko urteko programetan sartuta ez dauden kirol-lehiaketak antolatzea, eskola-ikasleek lehiaketa federatuetan parte hartzea eta hainbat kiroleko teknifikazio-unitateak garatzea sustatu ahalko ditu Nafarroako Gobernuak.

**18. artikulua.-** 1.- Udaleko Kirol Eskoletako kirol-programen eta Nafarroako Kirol Jokoen antolaketan eta gauzatzean kirol-federazioek izanen dute laguntza teknikoaren eta lankidetzaren ardurara.

2.- Udalek ikastetxe edo guraso-elkarteei eta federazioei lagunduko diete, nagusiki udaletako kirol-ekipamenduak erabiltzen utziz, Udaletako Kirol Eskoletako eskola-kiroleko programak behar bezala burutzeko.

3.- Nafarroako Kirol Institutua kirol-erakundeekin lankidetzan arituko da ikastetxeek Nafarroako Kirol Jokoretako jardueretarako beharrezkoak diren erabilera anitzeko kirol-instalazioak eta materiala eduki ahal izan ditzaten.

#### IV. kapitulua Unibertsitate Kirola

**19. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, unibertsitate-kiroltzat hartuko dira unibertsitateetako kirol-programen soilik unibertsitateko jendeak egiten dituzten kirol-jarduera guztiak, lehia-kirola nahiz jolas-kirola izan.

**20. artikulua.-** Beren autonomiaren esparruan, unibertsitateei dagokie beren esparruan kirol-jarduera antolatu eta sustatzea, egoki jotzen dituzten

irizpideei jarraituz eta nahi duten antolamenduegituraren bitartez.

**21. artikulua.-** Botere publikoek lankidetzan arituko dira unibertsitateekin kirol-jarduerak unibertsitateetan zabaltzeko programetan.

**22. artikulua.-** Unibertsitateen arloan eratzten diren kirol-klubek edo kirol-elkarteek eta kirol-taldeek, federazio mailako lehiaketa ofizialetan parte hartu nahi badute, Nafarroako Gobernuko Kirol Entitateen Erregistroan eman beharko dute izena, eta dagokien federazioan afiliatu beharko dira.

#### V. kapitulua Lehia-kirola

**23. artikulua.-** Lehiaketetako kirol-jarduera federatua nahiz jolas-kirolekoa izan daiteke:

a) Kirol-jarduera federatutzat hartuko da pertsona fisikoek banaka nahiz behar den bezala legeztaturiko entitateetan integraturik egiten dena, kasuan kasuko federazioari atxikirik, haren zuzendaritza eta ganbegiraketapean eta lehiaketa eta jarduera ofizialen esparruan.

b) Jolas-kiroltzat hartuko da federazioen antolamenduaz kanpo egiten dena.

**24. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, honela sailkatzen dira lehiaketak et jarduerak:

a) Ofizialak eta ez ofizialak, jatorriaren arabera.

b) Udal, erkidego, estatu edo nazioarte mailakoak, egiten diren lurraldearen arabera.

2.- Jarduerak eta kirol-lehiaketa ofizialak sailkatzeko irizpideak foru lege hau garatzeko xedapenetan ezarritakoak izanen dira.

3. Jarduera edo lehiaketa ofizialaren izena gorde da halakotzat sailkatuta daudenetarako, foru lege hau garatzeko xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

**25. artikulua.-** 1. - Kirol-lehiaketa ofizial guztietan behar diren neurriak hartuko dira ondokak bermatzeko:

a) Kirol-praktikak berekin dakartzan arriskueta-tik babestea, bai osasunaren arloan eta bai erantzukizun zibilaren arloan ere.

b) Legezkoak ez diren praktikak kontrolatzea eta haien aurka borrokatzea, kirolarien errendimendua areagotzeko.

c) Disziplina-araubidea lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetan aplikatzeko behar diren bideak.



d) Parte-hartzaile aktibo nahiz pasiboen edozein bortxazko agerpeni aurrea hartzeko behar den segurtasuna.

e) Kirol-jardueran aritzeko kontratu bat eskatzea, erantzukizun zibila betetzeko, jarduerak hirugarrenentzat arriskurik sortzen duen guztietan.

2. Kirol-lehiaketa ez ofizial guztietan, gutxienez, behar diren neurriak hartuko dira aurreko idatz-zatiko a), d) eta e) letretan ezarritakoa bermatzeko.

### VI. kapitulua Errendimendu handiko kirola

**26. artikulua.-** 1. Nafarroako Gobernuak sustatu, lagundu eta zainduko ditu errendimendu handiko kirolari ez profesionalak.

2.- Foru lege honen ondorioetarako, kirolari bat errendimendu handiko kirolaritzat hartzeko irizpideak eta baldintzak kirolaren arloan eskuduna den departamentuak, kirol-federazioekin eta Nafarroako Kirol Kontseiluarekin batera, arauz ezarritzen dituenak izanen dira.

3. Kirolari bat errendimendu handiko kirolaritzat kalifikatzeak honako onura hauek eskuratze-ko aukera ekarriko du berarekin:

a) Bekak edo laguntzak (diruzkoak nahiz gauzazkoak), izaera hori duen bitartean.

b) Ikasketen eta kirol-jardueraren arteko bateagarritasuna, ikastetxe berezietan arituz.

c) Kirol-teknifikazioko programetan eta prestatze-plan berezietan sartzeko, kirol-federazioekin koordinatuz.

d) Unibertsitatez kanpoko kirol-titulazioetarako ikasketetan sartzeko probetarako edo titulazio horietako ikastaroak baliokidetzeko baldintzak, erregelamenduz zehaztuko direnak, betetzeaz salbuetsita geratzea.

e) Estatuko Administrazioak ezarriko dituen eta aplikagarri zaizkien bestelako onurak.

4.- Nafarroako Gobernuak errendimendu handiko kirolean diharduten talde eta kirolariei dirulaguntzak emateko eta jarraipen eta ebaluazioa egiteko egoki diren jardunbideak garatuko ditu.

**27. artikulua.-** Errendimendu handiko kirolariei jarraipen hobea egiteko, Teknikazio Zentroa eratu da, horren helburu nagusiak honako hauek izanik: errendimendu handiko kirolarientzat espezializazio-programak garatzea eta kirol-talentuak detektatzeko programak garatzea.

### VII. kapitulua Kirol-selektzioak

**28. artikulua.-** Kasuan kasuko federazioen bitartez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako kirol-selektzioak sortzea sustatuko du, estatu- eta nazioarte-esparruko lehiaketetan parte har dezaten.

**29. artikulua.-** Klubek, kirol-elkarteek edo kirol-taldeek euren kirolariak laga beharko dituzte, kasuan kasuko selektzioa osatu dezaten, federazio batek horretarako dei egiten badu.

### VIII. kapitulua Kirol-jarduerarako laguntza pribatuak

**30. artikulua.-** 1.- Funts berekien (diruzkoen nahiz gauzazkoen) bitartez halakotzat hartuak diren kirol-jarduerari laguntza ematen dieten enpresa edo erakunde pribatuak lehentasunezkoak direla joko da.

2.- Enpresa horiek aparteko zerga-arinketa fiskalak lortu ahalko dituzte, dagokion araudi fiskalak ezartzen duenari jarraituz.

### III. TITULUA Kirol-erakundeak

#### I. kapitulua Xedapen orokorrak

**31. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, honela sailkatuko dira kirol-erakundeak: klubak edo kirol-elkarteak, kirol-taldeak, kirol-federazioak eta kirol-sozietate anonimoak.

**32. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-erakundeak foru lege honetan aurreikusitako ondorio guztietarako ofizialki aintzat hartuak izateko, beharrezkoa izanen da horiek Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan izen ematea. Izen ematea beharrezkoa izanen da, bereziki, Nafarroako administrazio publikoen edozein laguntza edo babes eskuratu ahal izateko.

2.- Kirol Erakundeen Erregistroari dagokionez, erregelamendu bidez arautuko dira atxikitzea, antolaketa, eginkizunak eta sarbide-eraentza.

**33. artikulua.-** Kirol Erakundeen Erregistroan izen emandako kirol-erakundeek betebeharrak izanen dituzte:

a) Kontabilitatea Kontabilitate Plan Orokorraren arabera antolatua eta kirol-erakundeei egokitu edukitzea, eta horren bitartez behar bezala adieraztea buruturiko eragiketa ekonomikoen emaitzak.

b) Erakundearen jardun normalak erakarritako gastuak bertako kideen ekarpenekin eta urtero aurreikusitako dirusarrera arruntekin ordaintzea.

c) Dirusarrerak, kirol-ekitaldietan lorturiko etekin eta sariak barne, erakunde-xedeak betetzeko osoki aplikatzea.

d) Etekinak ezin izanen dira inola ere banatu erakundeko kideen artean.

e) Euren ondasunak besterendu edo horien gain kargak ezartzeko, dirua maileguan hartzeko eta zorra edo ondasunaren gaineko kuota-partea ordezkatzan duten titulu transmitigarriak jaulki ahal izateko erregelamenduz zehaztuko diren betebeharrak betetzea.

f) Erakundea desegiten baldin bada, horren ondorioz eskuraturiko ondare garbia erakundea zegoen lurraldeko kolektiboaren kirol-helburueta-rako erabili beharko da.

## II. kapitulua

### Klubak edo kirol-elkarteak

**34. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, klub edo kirol-elkartetzat hartuko da nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen edozein edozein erakunde pribatu, baldin eta bere oinarriko xedeak gorputz- eta kirol-jarduera sustatu, garatu eta egitea baldin badira, inolako irabazi-asmorik gabe.

**35. artikulua.-** 1.- Klubak edo kirol-elkarteak halako moduan eratu beharko dira non dokumentu bidez agertu beharko den euren borondatea, xedea eta lortu nahi dituzten helburuak, bai eta irabazi-asmorik ez daukatela ere.

2.- Estatutuei dagokienez, ordezkagarritasun-printzipioari jarraitu beharko zaio, aplikatzekoak diren kirol-arauen arabera. Barne-antolaketak demokratikoa beharko du izan, eta Batzar Nagusia, zeina botoa emateko eskubidea daukaten elkartekide guztiek osatuko baitute, izanen da gobernu-organo gorenena.

3.- Batzar Nagusiak hautatu beharko du Zuzendaritza Batzordea, eta bere kargu guztiak hornitzeko bere kide guztien sufragio aske, berdin eta sekretura jo beharko da.

**36. artikulua.-** 1.- Klubak edo kirol-elkarteen araubide juridikoa erregelamendu bidez ezarritako arauak egokitu beharko zaie. Halaber, Nafarroako kirol-federazioek zeinek bere modalitatean ematen dituzten arauak ere aplikatzekoak izanen zaizkie.

2.- Betiere, klubak edo kirol-elkarteen estatuak Batzar Nagusiak onetsi eta kasuan kasuko

kirol-administrazioak berretsi beharko ditu, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen eman ahal izateko.

3.- Klub edo kirol-elkarteetako lehendakariak horien legezko ordezkariak izanen dute, eta haien organoetako lehendakari gisa jardunen dute.

**37. artikulua.-** Klubek edo kirol-elkarteek aurrekontu eta ondare berekien araubideari lotuta beharko dute egon, irabazi-asmorik gabeko erakundearen printzipioei jarraituz.

**38. artikulua.-** 1.- Klubek edo kirol-elkarteek federazioen esparruko lehiaketetan jardun ahal izateko, parte hartu nahi duteneko kirolei dagozkien federazioetan izen eman edo horietara afiliatu beharko dute.

2.- Betiere, Nafarroako kirol-federazioek Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen ematea galdatu beharko diete afiliaturiko klub edo kirol-elkarteei.

3.- Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen emandako klub edo kirol-elkarteek euren jardura kirol-organo eskudunek sustaturiko kirol-programetara egokitzen badute, organo horien laguntza izanen dute.

4.- Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen ematen duten klub edo kirol-elkarteen berri erakunde eskudunei ematea.

**39. artikulua.-** Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzeko xedea duten klub edo kirol-elkarte gisa eratzan diren izaera funtzionaleko entitateak arautu beharko dira foru lege honek horrelako entitateentzat ezarritakoari jarraituz.

**40. artikulua.-** Legearen arabera eraturiko erakunde edo elkarte pribatuen jardura baldin badira gorputz- eta kirol-ekintzak sustatu eta egitea, inolako irabazi-asmorik gabe, erakunde edo elkarte pribatu horiek Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen emandako klub edo kirol-elkarteentzat ezarritako kirol-onura eta eskubideak lortu ahalko dituzte, baldin eta kasuan kasuko erakundearen kirol-atala erregistro horri atxiki baldin badiote, aplikatzekoak diren erregelamenduarauak xedaturikoari jarraituz.

**41. artikulua.-** Irabazi-asmorik gabeko kirol-erakunde edo elkarteek Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen ematea eskatzen badute eta ez badira ezein kirol-federaziotako kide, edo horrelakoetara afiliaturik ez badaude, dagokion maila edo esparruan kirol-ekintzak modu jarraian egiten dituztela frogatu beharko dute, ezarriko den

moduan, kirol-ondorioetarako erregistraturiko erakundetzat hartuak izan ahal izateko.

### III. kapitulua Kirol-elkarteak

#### Lehen atala Kirol taldea

**42. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, kirol-taldetzat joko da lanbide-, lan-, hezkuntza- edo geografia-uztardura bereziz loturiko pertsona fisikoz edo juridikoz edo fisiko eta juridikoz osaturiko edozein talde edo erakunde pribatu, inolako irabazi-asmorik gabe kirol anitzetako ekintzak garatu, sustatu eta egiteko xedea duena.

**43. artikulua.-** 1.- Kirol-taldeak eratzean eta euren estatutuak taxutzean ordezkapen demokratikoko printzipioei jarraitu beharko zaie.

2.- Kirol-taldeek Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen eman beharko dute. Federazioen esparruko lehiaketetan jardun nahi dutenek parte hartu nahi duten kirolaren federazioan afiliatu beharko dute.

**44. artikulua.-** Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan izen emandako kirol-elkarteek euren ekintzak kirol-organo eskudunek onetsi eta gomendatutako kirol-programetara egokitzen baldin badituzte, organo horien laguntza izanen dute.

#### Bigarren atala Eskolako kirol taldea

**45. artikulua.-** 1.- Eskolako kirol taldeak dira pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuak, osaturikoak, eta helburu soil gisa eskola-adinekoen kirol-ekintzak dituztenak.

2.- Eskolako kirol taldeek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanen dituzte, euren eginkizunak betetzeko.

3.- Bai lurralde-esparrua bai eraketari, osaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko arauak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta ordezkapen- eta demokrazia-printzipioen arabekoak beharko dute izan; beti ere, jarduera kasuan kasuko kirolari dagozkion kirol-federazioekin koordinatuko dute.

4.- Oro har, foru lege honek klub edo kirol-elkarteentzat ezarritako eraketa-, antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea aplikatuko zaie, honako berezitasun hauekin:

a) Xedeak eskola-adineko kirol-ekintzekin lotura izan beharko du.

b) Lurralde-esparruak udalerrri bat edo batzuk hartu ahalko ditu.

c) Ikastetxeek, ikasleen guraso-elkarteek, udalek, kirol-federazioek, klub edo kirol-elkarteek eta bestelako talde interesdunek haiek osatu ahalko dituzte.

### IV. kapitulua Kirol Federazioak

**46. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazioak interes publiko eta sozialeko erakunde pribatuak dira, eta, funtsean, Nafarroako lurraldean aintzat hartutako berariazko kirolak egiteko sustapen-, kudeaketa- eta koordinazio-lanetan diharduten klub edo kirol-elkarteek, kirol-taldeek, kirolariak, epaileak eta teknikariak osatzen dituzte.

2.- Nafarroako kirol-federazioek nortasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoak izanen dituzte euren helburuak betetzeko.

**47. artikulua.-** 1.- Nafarroako lurralde-esparruaren barnean kirol-modalitate bakoitzeko kirol-federazio bat baizik ezin izanen da aintzat hartu.

2.- Nafarroako kirol-federazio gisa eratzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aldez aurretik kirol-modalitate jakin bat egoitea eta kirol hori egiteko ohitura izatea.

b) Erregelamendu bidez ezarriko den erakunde- edo sustatzaile-kopuru batek egindako proposamen bat.

**48. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazioek, estatu-esparruko kirol-ekintzetan parte hartzeko, Espainiako federazioetako kide beharko dute izan, dagokien ordezkariarekin.

2.- Diziplina- eta lehiaketa-arloetan Espainiako eta nazioarteko kirol-federazioek dauzkaten arau eta erregelamenduak Nafarroako federazioei –eta, hala behar badu, euren klub eta erakunde afiliatuei– aplikatu ahalko zaizkie estatu- edo nazioarte-esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenean.

**49. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazio bat legeaz aintzat hartua izan dadin, beharrezkoa izanen da aldez aurretik bere estatutuak onetsita edukitzea, estatutu horiek Nafarroako Gobernuko kirol-administrazioak berretsiak izatea eta Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea.

2. Nafarroako kirol-federazio bakoitzak bere kirolaren berariazko beharrezko arabera egin ahalko du bere lurralde-antolaketa.

**50. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazioak beren kideen ordezkariak demokratikoko printzipioei jarraituz eratu beharko dira, eta beren estatutuek eta kirol-erregelamenduek arautuak izanen dira.

2.- Nafarroako federazioek zuzendu eta arautu egin beharko dituzte euren kirol-espezialitateei dagozkien jarduerak, Kirol Institutuarekin koordinatuz buruturikoak.

**51. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazioetako gobernu-erakundeak Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta Lehendakaria izanen dira.

2.- Kasuan kasuko federazioa osatzen duten erakundeen ordezkariak proportzionala izanen da Batzarra; alegia, honako hauena: klub edo kirol-elkarteena, kirol-taldeena, kirolari, epaile eta teknikariena.

3.- Kirol-federazioko lehendakaria sufragio aske, zuzen, berdin eta sekretuaren bitartez hautatuko du Batzarrak, bere kide guztien artean; federazioaren legezko ordezkariak izanen du, eta haren organoen lehendakari-lanetan jardunen du.

4.- Lehendakariak hautatuko du Zuzendaritza Batzordea.

**52. artikulua.-** 1.- Nafarroako kirol-federazioen eraketa, araubide juridikoa, jarduerak eta funtzionamendua foru lege honetako xedapenetan eta aplikatzekoak diren erregelamendu-arauetan ezarritakoaren arabera izanen dira.

2.- Kirol-federazioek federazio-bideetatik gauzatuko dute euren kide edo afiliatuen gaineko diziplina-boterea.

**53. artikulua.-** Nafarroako kirol-federazioek aurrekontu eta ondare berekien araubideari lotuta beharko dute egon, eta, urtero, euren kontabilitatearen eta egoera ekonomiko edo finantzarioaren gaineko kontu-ikuskapena edo kontabilitate-egiaztapena egin beharko dute, Nafarroako Gobernuaren kirol-administrazioaren erabakiei jarraituz.

**54. artikulua.-** Nafarroako kirol-federazioek Nafarroako- nahiz estatu- edo nazioarte-esparruko euren programen eta jardueren berri eman beharko diote Kirol Institutuari.

2.- Nafarroako Gobernuko kirol-administrazioari dagokio, kirol-federazioekin hala adostuta, autonomia-erkidegoen artean eta nazioartean kirol-ekintzak egin eta antola daitezen sustatzea, aplikazio orokorreko arauak jarraituz.

## V. kapituluak Kirol sozietate anonimoak eta liga profesionalak

### Lehen atala Kirol sozietate anonimoak

**55. artikulua.-** 1.- Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeari jarraituz eraturiko eta sozietate-helbidea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean daukaten kirol-sozietate anonimoek Foru Lege honetatik eta bera garatzeko arauetatik eratorritako berariazko onurak izan ahalko dituzte, Nafarroako Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatu ondoren.

2.- Sozietate-helbidea Foru Komunitatean izanik profesionalak ez diren lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol-sozietate anonimoak kirol-klub gisa joko dira Nafarroako kirol-federazioetako organoetan parte hartzeari dagokionez.

3.- Erregelamendu bidez zehaztuko dira atxikitze-prozedura eta hori burutu ahal izateko behar den dokumentazioa.

### Bigarren atala Liga Profesionalak

**56. artikulua.-** 1.- Modalitate bereko kirol-klubek liga profesionalak eratu ahalko dituzte; liga horietan parte hartzen duten klub guztiek osatuko dituzte, eskusiboki eta nahitaez, aipaturiko ligak. Foru Administrazioak liga horietarako baimena eman beharko du.

2.- Liga profesional bat osatzen duten kirol-klubek kirol-sozietate anonimoaren forma juridikoa hartu beharko dute, indarra duen legediak ezartzen duen moduan.

3.- Liga profesionalak nortasun juridiko berekia izanen dute, eta autonomia izanen dute euren barne antolaketari eta funtzionamenduari dagokionez; halaber, kasuan kasuko Nafarroako kirol-federazioarekin hitzarmenak sinatu ahalko dituzte. Euren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

4.- Liga profesionalen eraketa, estatutuak eta erregelamenduak foru Administrazioak onetsiko ditu.

**57. artikulua.-** Liga profesionalak eskumen hauek izanen dituzte:

a) Euren lehiaketa berekiak antolatzea.

b) Euren bazkideei dagokienez kontrol-, zaintza- eta ikuskapen- eginkizunak betetzea, bai eta

Lege honek nahiz bere garapen-arauek, estatu-tuek eta erregelamenduek ezarritakoak ere.

c) Diziplina-boterea lege honek eta bere garapen-arauek ezarritako moduan erabiltzea.

## **VI. kapitulua** **Kirol erakundeei laguntzea**

**58. artikulua.-** Foru Administrazioak kirol-erakundeei dirulaguntzak emateko sistemak antolatuta ahalko ditu, eta laguntza horiek eman ziren helbururako benetan aplikatzen direla ziurtatzeko kontrol-prozedurak ezarriko ditu.

**59. artikulua.-** Kapitulu honetan aipaturiko laguntzak eta dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartuko dira laguntzak jasoko dituztenek edo eskatu dituztenek lorturiko kirol-kalifikazioa, parte hartu duteneko edo parte hartzeko asmoa duten lehiaketa zein motatakoa den, parte-hartzaileen kopurua, nahitaez erabili beharreko kirol-materiala, antolaketa behar diren pertsonak eta erregelamendu-arauetan zehazten diren bestelako gauza guztiak.

## **IV. TITULUA** **Kirol-instalazioak**

### **I. kapitulua** **Plangintza**

**60. artikulua.-** 1.- Nafarroako Foru Komunitatean kirol-instalazioen eta - ekipamenduen plan-gintza eta programazioa egiteko, Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeari eta Nafarroako Kirol Kontseiluari kontsulta egin ondoren, dekretu bidez onetsiko ditu kirol instalazioei buruzko plana eta horren aldaketak; horien indarraldia lau urtekoa izanen da.

2.- Nafarroako toki-administrazioek aurrekoa bete dadin zainduko dute, eta behar diren hirigintza-xedapenak sartuko dituzte euren planeamendu-tresnetan.

**61. artikulua.-** 1.- Instalazioei buruzko planaren xede izanen da planaren indarraldian zehar egin beharreko oinarrizko azpiegitura –funtz publikoekin finantzatua– zehaztea; horretarako, populazio-moduluen, erabiltzaile-kopuruaren, egoeraren, klimaren eta dauden instalazioen arabera, oinarrizko azpiegituraren ezaugarri teknikoak eta kokapen geografikoa ezarriko ditu.

2.- Halaber, finantzaketa-programa ezarriko du, zeresana daukaten erakunde publikoek exekuzio-epe bakoitzean egiten dituzten inbertsioak zehaztuz.

**62. artikulua.-** Instalazioei buruzko plana onesteak berarekin ekarriko du bertan sarturik dauden obrak onura publikokoak izateari buruzko deklarazioa, plana burutzeko beharrezkoak diren eraikin eta lursailen gain zortasunak eratzearen edo haien nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako

**63. artikulua.-** 1.- Kirol-instalazioak eraiki, erabili eta mantentzeko dagokienez, Nafarroako Gobernuak honako hauek eraentzeko arauak emanen ditu:

a) Instalazioek, zertarako erabiliko diren kontuan izanik, izan behar dituzten ezaugarri teknikoak, baldintzak eta gutxienezko tamaina, eta instalazioak eraikiko diren lursailen ezaugarriak.

b) Horien eraikuntza, abiarazpena, erabilera eta mantenimendua eraendu behar dituzten oinarritzko arauak.

c) Instalazioen osasun-, higiene- eta segurtasun-baldintzak eta minusbaliotasunak dauzkaten pertsonen instalazioetan sarbidea eta horiek erabiltzeko modua izatea ahalbidetzekoak.

2.- Instalazio publiko edo pribatuen sustatzaileek aurreko lerrokadan aurreikusitako araudia bete beharko dute erabilera publikorako instalazioak eta ekipamenduak eraikitzean.

3.- Udalek araudi hau beren udal dermioletan kokaturiko erabilera publikoko kirol-instalazio guztietan bete dadin zainduko dute. Obra- edo jarduera-lizentzia ematean egiaztatuko da araudia betetzen dela.

**64. artikulua.-** Foru eta Toki Administrazioek ikastetxeei erantsirik dauden aire zabaleko kirol-instalazioak irekita eduki behar dituzte, eskola-orduetatik kanpo (aste-bukaerak eta oporrak barne) kirola egiten duen edozein pertsonak eskura izan ditzan instalazio horiek.

### **II. kapitulua** **Instalazioen Erregistroa**

**65. artikulua.-** Nafarroako Kirol Ekipamendu eta Instalazioen Erregistroa sortuko da, zeinak xede izanen baitu Foru Komunitateko kirol-ekipamenduak, -instalazioak eta -erabilerako gune irekiak bildu eta kontrolatzea eta kirol-ekipamendu eta -instalazioen plano orokorrak egin daitezten erraztea.

**66. artikulua.-** 1.- Foru Komunitateko kirol-administrazioak, udalekin zein kirol-federazio eta -elkarteekin lankidetzan, Nafarroako kirol-azpiegituren zentsu zehaztua egiten du. Horren ondorioetarako, kirol-azpiegituratzat joko da kirol-

jarduera bat egiteko baldintza aski betetzen duen gunere ireki zein itxi oro, non dagoen ere. Zentsu hori Nafarroako Kirol Ekipamendu eta Instalazioen Erregistroak bilduko du.

2.- Hartara, hala Nafarroako Foru Komunitateko ente publiko nola kirol-elkarte eta erabilera publikoko instalazioen titular diren entitate pribatuek zentsua egin eta eguneratzeko beharrezkoak diren datu guztiak emanen dizkiote Foru Komunitateko kirol-administrazioari.

**67. artikulua.-** Azpiegiturei buruz zentsuan bilzen diren datuek ondokoak jasoko dituzte gutxienez ere:

- a) kokalekua
- b) titularra nor den
- c) kontserbazio-egoera eta zer zerbitzu dituen
- d) edukiera
- e) zer kirol-jarduera egin daitekeen bertan

**68. artikulua.-** Foru Komunitateko kirol-instalazio orok eduki beharko ditu estalita bertan egiten den kirol-jardueratik sor daitezkeen erantzukizun zibileko arriskuak.

### **III. kapitulua** **Kirol instalazioetarako laguntzak**

**69. artikulua.-** 1.- Kirol-instalazioak eraiki, hobetu eta ekipatzeko dirulaguntzak ematearren foru administrazioak egiten dituen deialdietan ondoko baldintzak jaso beharko dira besteak beste:

- a) kirol-instalazioei buruzko oinarritzko araudia betetzea
- b) instalazioa jendearentzako zabalik egonen dela, erregelamendu bidez ezriritako baldintzetan egon ere, bermatzea diruz lagundutako entitateak
- c) instalazioa erabili eta mantentzeko kostuak beteko direla bermatzea diruz lagundutako entitateak.

2.- Laguntza horiek Nafarroako ente publikoek eta Nafarroako Entitate Publikoen Erregistroan izena emandako kirol-federazio, -talde eta -elkarte edo -klubek eskuratu ahalko dituzte.

## **V. TITULUA** **Kirol-arloko prestakuntza,** **ikerketa eta sostenguak**

### **I. kapitulua** **Prestakuntza eta titulazioak**

#### **Lehen atala** **Nafarroako Kirol Eskola**

**70. artikulua.-** 1.- Nafarroako Kirol Eskola Nafarroako Gobernuaren administrazio-zerbitzu bat da, kirol-arloko eskumena duen departamentuari atxikia. Hona haren egitekoak:

- a) Kirol-arloko prestakuntza teknikoko programak planifikatu eta koordinatzea.
- b) Zuzendaritzako kideak eta epaileak prestatzeko programak planifikatu eta koordinatzea, kirol-federazioen berariazko programak zein diren ikusita.
- c) Kirol-arloko ikerketa teknikoko programak sustatu eta bultzatzea.
- d) Ikastaro, zentro, titulazio eta intereseko gainerako informazioen erregistroa sortu eta kudeatzea.
- e) Kirol-arloko azterlanak zabaltzea.
- f) Kirolari buruzko dokumentazio-zerbitzua antolatzea.
- g) Ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta kirol-teknifikazioko programak antolatu edo egitea.
- h) Kirol-federazioei eta bestelako zentroeiei aholku ematea teknikariak eta epaileak prestatzeko euren programetan.
- i) Erregelamendu bidez esleitzen zaion beste edozein.

2.- Nafarroako Kirol Eskolak Teknikazio Zentroarekin eta kirol-federazioekin koordinatu beharko du, giza eta gauza baliabideak ahalik eta hoberekin baliatzearen.

3.- Nafarroako Kirol Eskolaren antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

#### **Bigarren atala** **Titulazioak**

**71. artikulua.-** 1.- Irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamendu, animazio eta kirolarekin zuzenean lotutako beste edozein zerbitzu eman ahal izateko, botere publikoek, bere eskumenen esparruan, izan beharreko titulu ofiziala izatea eskatuko dute. Lege hau garatzeko xeda-

penen bidez zehaztuko da, alorrez alor, titulua izan behar horren norainokoa.

2.- Aurreko idatz-zatian ezarritako eskakizun hori benetan betetzen dela zainduko dute Foru Komunitateko botere publikoek eta kirol-federazioek.

**72. artikulua.-** Federazioaren baitan izaera teknikoko jarduerak garatu ahal izateko titulua eskatzen duten kirol-federazioek onartu egin beharko dituzte Foru Komunitatearen esparruan ofizialtzat jo diren zentroek emandako tituluak.

**73. artikulua.-** 1.- Nafarroako Gobernuak, kirol-federazioekin batera, kirol-arloko teknikarien prestakuntza bultzatuko du. Halaber, kirol-irakas-kuntza eta -titulazioei buruzko arauak emanen ditu.

2.- Nafarroako Gobernuak zein federazioek onartutako zentroetan, publiko zein pribatuetan, egin beharko da kirol-arloko teknikarien prestakuntza.

## II. kapitulua Kirol-ikerketak

**74. artikulua.-** Botere publikoek ikerketa zientifikoaren garapena bultzatuko dute kirolarekin zerikusia duten arloetan kirolaren kalitatea hobetzeko, eta lortutako emaitzen aplikazioa eta zabal-kundea sustatuko dute.

**75. artikulua.-** Ikerketari sostengua ematearren, Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroa sortuko da. Zentro horri dagokio kirolarien kontrol integrala, ebaluazioa eta aholkularitza, batez ere errendimendu handiko kirolariena. Zentroaren eginbehar zehatzak erregelamendu bidez ezarri eta garatuko dira.

## III. kapitulua Kirolariarentzako sostengua eta dopatzeari aurrea hartzea

### Lehen atala Kirolariarentzako sostengua

**76. artikulua.-** Foru lege honen ondorioetarako, kirolari dira kirolen bat egiten duten pertsonak, nahiz eta federatuta egon ez eta kirol-lehiaketetan parte hartu ez.

2.- Botere publikoek eta entitate pribatuek sustatu egingen dute kirolari guztiak foru lege honetan arautzen diren federazio-egituretan sartzeari, laguntza eta babesik onena ematearren.

**77. artikulua.-** Kirolariei osasun laguntza eta babes egokia ematea sustatuko du Nafarroako

Gobernuak; horretarako, lege honetan bertan bildutako bestelako neurriez gain, ondoko neurriak ezarriko dira:

a) Hautzaroan hasita erraztea kirol-prestakuntza; hartara, gorputz-hezkuntza derrigorrezkoa izanen da arlo horretan aplikatzekoa den legeriak ezarritako hezkuntza-mailetan.

b) Erregelamendu bidez eskatzen den titulazioa izan dezaten eskatzea kirol-teknikariei zein kirol-instalazioetako arduradunei.

c) Kirol-instalazioetako osasun- eta higiene-baldintzak arautzea.

d) Kirola egiteko gaitasun fisikoa kontrolatzen eta kirolariei osasun-maila gorenari eusten laguntzen duten neurriak har ditzaten eskatzea kirol-jarduerak sustatzen dituzten entitateei eta arduradunei, osasun-arloan indarra duen legeriarekin bat.

e) Medikuen eta osasun-arloko langileen prestakuntza eta kirol-medikuntzako laguntza-unitate espezializatuaren garapena bultzatzea.

f) Osasun kontrol eta laguntza bermatzea kirolari federatuei, sektore publikoak egiten duen mediku-asegurua eginez, edo bestela, zerbitzu horiek beteko dituen edozein aseguru pribatu; betiere, derrigorrezkoa izanen da asegurua.

g) Banakako txartela ematea, hala lehen kirol-lizentziarekin nola kirolariak berak eskatuta, kirol- eta osasun-arloko informazioarekin. Haren edukia erregelamendu bidez ezarriko da.

h) Kirol-jarduerako istripuei aurrea hartzeko nahiz osasunari mesede egiteko ikuskatze- eta kontrol-neurriak zein kirol-izaerakoak hartzea, kirol-federazioekin lankidetzan, kirol-mota bakoitzaren ezaugarriak eta izaera kontuan hartuta.

### Bigarren atala Dopatzeari aurrea hartzea

**78. artikulua.-** Nazioarteko itunetan arlo hori dela-eta xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak kirolarien gaitasun fisikoa modu artifizial batez garatzea eta lehiaketan emaitzak aldatzea xede duten gai eta metodo debekatuen zerrenda egin, eguneratu eta argitaratuko du.

**79. artikulua.-** 1.- Nafarroako Gobernuak, kirol-federazioekin lankidetzan, aurreko artikuluan aipatzen diren gai eta metodo debekatuei aurrea hartzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko neurriak sustatu eta bultzatuko ditu.

2.- Kirol-arloko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentua arduratuko da dopatzea kontrolatzeko prozesuen normalizazioaz.

Horretarako, Gobernuak erregelamendu bat onetsiko du, eta bertan ondokoak arautuko dira gutxienez ere:

- a) laginak hartzea
- b) laginak jaso eta bidaltzeko prozesuak
- c) analisiak eta emaitzak jakinaraztea
- d) laginak aztertze laborategiak
- e) dopatzea kontrolatzean esku hartu dutenen eskubide eta betebeharrak.

**80. artikulua.-** Lehiaketa ofizialetan parte hartzeko federazio-lizentzia duten kirolari guztiek egin beharko dituzte dopatze-kontrolak, lehiaketetan zein horietatik kanpo, baldin eta hala eskatzen badute kirol-arloko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, kirol-federazioak zein arlo horretan eskumena duen beste entitate batek.

**81. artikulua.-** Dopatze-kontrolak hartutako laginen analisiak kirol-arloko eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak modu ofizialean onartutako laborategietan egin beharko dira. Kirolari batek eskatuta egindako kontraanalisia ezin izanen dira egin lehen analisia egin den laborategian.

## VI. TITULUA

### Kirol-diziplina eta zehapen-araubidea.

#### I. kapitulua Xedapen orokorrak

**82. artikulua.-** 1.- Kirol-arloko zehapen-ahalmenaren esparruak ondokoak biltzen ditu: joko edo lehiaketa arauak eta lege honetan zein lege hau garatzeko xedapenetan eta kirol-federazioen eta klubaren erregelamendu zein estatutuaren ezarritako kirol-arau orokorrak haustea.

2.- Joko- edo lehiaketa-mailako arau-hauste dira joko edo lehiaketak irau bitartean haren garapen normala urratu, oztopatu edo nahasten duten egite eta ez-egiteak.

3.- Kirol-arau orokorretako arau-hauste dira arestiko idatz-zatian jaso ez diren egite eta ez-egiteak, baldin eta kirol-harremanen garapen normala eta kirolaren printzipio etikoak kaltetu eta hondatzen badituzte.

**83. artikulua.-** 1.- Zehapen-ahalmenak esku ematen die haren titular legezko kirol-diziplinari lotutako pertsona zein entitateak ikertzeko eta, hala egin behar badute, zehatzeko.

2.- Zehapen-ahalmena dute:

a) Epaile eta arbitroek –partidak, probak eta lehiaketak egin bitartean–, kirol-mota bakoitzeko xedapenetan ezarritako arau jarraikiz.

b) Kirol-klubek, klubeko kide eta bazkideen, kirolari eta teknikarien eta zuzendaritzako kide eta administratzaileen gainean.

c) Nafarroako kirol-federazioek, haien egitura organikoaren parte diren pertsona guztien, kirol-kluben eta haien kirolari, teknikari eta zuzendaritzako kideen, epaile eta arbitroen eta, oro har, haien eskumeneko esparruaren baitan bere kirol-jarduera garatzen duten pertsonen gainean, baldin eta federatuta badaude.

d) Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeak, federazioen gainean, haren organoen egintzetan.

## II. kapitulua

### Kirol-arloko arau-hauste eta zehapenak

**84. artikulua.-** 1.- Kirol-portaera, lehiaketa eta joko mailako arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

2.- Betiere, arau-hauste oso larritzat joko dira:

a) Agintekeria eta eskurantzak usurpatzea.

b) Hutsegite larri edo oso larri bat dela-eta ezarritako zehapenak haustea.

c) Prezio, beldurtarazpen zein beste edozein inguruabarren bidez, lehiaketa, proba edo partida baten emaitza alde aurretik zehaztea xede duten egintzak.

d) Erregelamendu- zein lege-xedapenetan debekatutako gai eta metodoak sustatu, bultzatu, erabili eta hartzea kirola egitean, bai eta eskumena duten pertsona eta entitateek eskatutako kontrolak behar bezala egitea oztopatu edo nahasten duten egite eta ez-egiteak.

e) Epaile, arbitro, kirolari, teknikari, entrenatzaile, ordezkari, zuzendaritzako kide, federazioko beste edozein estamentutako gainontzeko pertsona eta oro har ikusleenganako eraso, beldurtarazpen eta hertsapenak.

f) Partida, proba zein lehiaketa bat egitea eragozten duen eta hura behin-behinekoz edo behin betikoz bertan behera uztera behartzen duen talde-jarduera edo protesta zalapartatsua.

g) Norbanakoaren jarduera edo protesta hiratu eta iraingarria edo epaile, arbitro, teknikari, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta gainontzeko kirol-agintariak emandako agindu eta jarraibideak



nabarmen ez betetzea, haien agintearenganako erdeinuz.

h) Kargua dela-eta ezagututako gaietan sekretua haustea.

i) Autonomiako kirol-selektzioaren deialdietara justifikatu gabe huts egitea.

j) Kirolari, teknikari, entrenatzaile, epaile, arbitro, zuzendaritzako kide eta bazkideen adierazpenak, talde eta ikusleen artean indarkeria eragiten badute.

k) Pertsonen osasunari eta segurtasunari eragiten ahal dieten zerbitzu eta jarduerak –gorputz-hezkuntzarekin eta kirolarekin zerikusia dutenak– egitea, haienganako arrisku larri eta zuzena baita karte.

l) Funts pribatuak eta ente publikoek emandako dirulaguntzak, maileguak, abalak zein gainontzeko laguntzak arauz kanpo erabiltzea.

m) Lege honetako 63. artikulua, erabilera publikoko kirol-instalazioak eraiki, erabili eta mantentzeari buruzkoa, garatzeko araudia ez betetzea.

n) Oro har, kirol-motaren berezitasunen arabera, kirol-entitate bakoitzak bere erregelamendu eta estatutuetan oso larritzat jotzen dituen joko-edo lehiaketa-arauak edo kirol-portaera haustea.

ñ) Kirol-eremuetan zein horietatik kanpo bor txazko eta kirolaren aurkako portaera izaten duten talde antolatuen eragin, sortu eta finantzatzea klubei, teknikari, entrenatzaileei, zuzendaritzako kideei zein bazkideei.

o) Kirol-arloko irakaskuntza, aholkularitza eta entrenamendu teknikoko zerbitzuak ematea diru truk, ordenamendu juridiko indardunak horretarako eskatzen duen titulazioa izan gabe.

3.- Halaber, federazioetako zuzendaritza-batzordeetako kide eta lehendakarien arau-hauste oso larritzat joko dira:

a) Batzar Nagusiaren eta gainontzeko federazio-organoen erabakiak ez betetzea.

b) Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordearen ebazpenak eta bestelako aginduak ez betetzea.

c) Kide anitzeko federazio-organismoak lege ezarritako epe eta baldintzatan aldiro modu sistematikoz ez deitzea.

d) Urte anitzeko aurrekontu-gastuak hitzartzea, erregelamenduzko baimenik izan gabe.

e) Federazio-lizentziak ez ematea, horretarako arrazoi justifikaturik egon gabe, baldin eta fede gaiztoz jokatu bada.

f) Nafarroako Gobernuarekin modu formalean hartutako konpromiso eta betebeharrak ez betetzea.

4.- Betiere, arau-hauste larritzat joko dira:

a) Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenak haustea.

b) Epaile, arbitro, teknikari, entrenatzaile, zuzendaritzako kide zein bestelako kirol-agintari, kirolari eta bertaratutako ikusleen aurkako irain eta laidoak.

c) Joko, proba edo lehiaketaren garapen normalari eragiten dioten protesta, beldurtarazpen eta talde-hertsapen zalapartatsuak.

d) Karguaren jardunean epaile, arbitro, teknikari, entrenatzaile, zuzendaritzako kide zein bestelako kirol-agintariak emandako agindu eta jarraibideak ez betetzea, baldin eta oso larriak ez badira.

e) Kirol-arloko duintasun eta begirunearen aurkako ekintza nabarmen eta publikoak.

f) Kirol-funtzio edo -jarduerarekiko bateraezintzat jotako jarduera publiko zein pribatuak.

g) Gorputz-hezkuntza eta kirola egin eta irakastea dela-eta Administrazioak emandako arau, agindu eta jarraibideak ez betetzea.

h) Kirol-eremu eta -instalazioetan segurtasun-neurririk ez egotea.

i) Kirol-instalazioak egin, mantendu eta erabiltzeko baldintzak ez betetzea, baldin eta horretarako dirulaguntza edo finantzaketa publikoa izan badute.

j) Aurreko hamabi hilabeteetan egindako arau-hauste arin bat errepikatzea.

k) Kirol-entitateek euren estatutu edo erregelamenduetan halakotzat jotzen dituzten arau-haustek –joko edo lehiaketa arloko eta kirol-portaera arloko arau-haustek–, kirol-motaren ezaugarrien arabera.

l) Lege honetako 63. artikulua –zeina erabilera publikoko kirol-instalazioak eraiki, erabili eta mantentzeari buruzkoa baita– garatze-araudia ez betetzea.

5.- Betiere, arau-hauste arintzat joko dira:

a) Epaile, arbitro, teknikari, entrenatzaile, zuzendaritzako kide zein bestelako kirol-agintari,

kirolari eta bertaratutako ikusleei oharrak egitea, baldin eta horiek zabarkeria arintzat jo badaitezke.

b) Jarrera pasiboa izatea karguaren jardunean epaile, arbitro, teknikari, entrenatzaile, zuzendari-tzako kide zein bestelako kirol-agintariek emanda-ko agindu eta jarraibideak betetzerakoan.

c) Lokalak, kirol-instalazioak eta bestelako gauza-baliabideak kontserbatu eta zaintzeko axo-lagabekeria, horregatik izan daitekeen erantzuki-zun zibil edo penala ezertan ukatu gabe.

d) Kirol-arloko irakaskuntza, aholkularitza eta entrenamendu teknikoko zerbitzuak doan ematea, ordenamendu juridiko indardunak horretarako eskatzen duen titulazioa izan gabe.

e) Kirol-entitateek euren estatutu edo erregela-menduetan halakotzat jotzen dituzten arau-hausteak -joko- edo lehiaketa-arloko eta kirol-portaera arloko arau-hausteak.

**85. artikulua.-** 1.- Kirol-arloko arau-hausteak direla-eta, diziplina-arauek ondoko zehapenak ezarri ahalko dituzte:

- a) Ohartarazpena
- b) Zentzarazpen publikoa
- c) Aldi baterako gabetzea
- d) Bazkide-eskubideak aldi baterako edo behin betikoz kentzea
- e) Federazio-lizentzia aldi baterako edo behin betikoz kentzea
- f) Aldi baterako edo behin betiko kirol-ezgaiztea
- g) Kargutik kentzea
- h) Diru-zehapena; halakoetan, zehapen-arauek zehaztu egin beharko du zenbatekoa.

2.- Kirolari, teknikari, entrenatzaile, epaile eta arbitroei kirol-jardueraren truke ordainsaria, prezioa, beka edo dirulaguntza jasotzen badute soilik ezarri ahalko zaie diru-zehapena. Beste zehapen baten osagarri gisakoa izan ahalko da diru-zehapena. Diziplina-arauek aurreikusi egin beharko dute zer zehapen ezarri ordaintzen ez denerako.

3.- Aurreko artikuluko 2. idatz-zatiko l) letran eta 4. idatz-zatiko i) letran azaldutakoa gertatzen bada, erantzuleak galdu egingen du urtebete eta lau urte bitartekako dirulaguntzak eta finantziazio publikoa jasotzeko eskubidea, jarri beharreko zehapenez eta jasotzeko itzultzeko arduraz gain.

4.- Aurreko artikuluko 2. idatz-zatiko m) letran eta 4. idatz-zatiko l) letran azaldutakoa gertatzen bada, arestian zehaztutako zehapenez gain,

Administrazio eskudunak eten egingen ditu berehalakoan lege honetako 63. artikuluan ezarritako bermeak biltzen ez dituzten instalazioetako kirol-jarduerak. Etena mantendu egingen da harik eta instalazioetako arduradunak horiek zehapen espedientearen ezarritako baldintzetara egokitu arte.

**86. artikulua.-** 1.- Kirol-lehiaketetako zehapen berariazkoak dira, aurreko artikuluan ezarritakoez gain:

- a) Kirol-eremua edo jokalekua ixtea.
- b) Partida galdutzat ematea edo proban deskalifikatzea.
- c) Puntuak edo sailkapeneko postuak galtzea.
- d) Maila galtzea edo hartatik jaistea
- e) Kirol-lehiaketa ateak itxita egin beharra
- f) Lehiaketatik aldi baterako edo betikoz botatzea

2.- Aurreko idatz-zatiko b) letran azaldutakoa gertatzen bada, zehapena ezartzeko organo eskudunak arau-haustea gertatu den partida, proba edo lehiaketaren emaitza aldatu ahalko du, baldin eta arau-haustea gertatu ez balitz emaitza beste bat izanen zela frogatzea badago. Bestela, arau-haustea gertatu den partida, proba edo lehiaketa baliorik gabe utzi eta hura errepikatzeko agindu ahalko du.

**87. artikulua.-** Diziplina-espedientearen bidez ezarritako zehapenak ez dira exekutiboak izanen baldin eta hura exekutatzea bertan behera utzi edo geldiarazten duten erreklamazio edo errekursoak jarri badira.

**88. artikulua.-** 1.- Diziplina-izaerako kirol-erantzukizuna alda dezaketen inguruabarrak aringarriak zein astungarriak izan daitezke. Inguruabar aringarriak dira betiere:

- a) Probokazio nahiko gertatu izana arau-haustearen aurre-aurretik.
- b) Berezko damua
- c) Egindako kaltea egiteko asmorik eduki ez izana

Inguruabar astungarriak dira betiere:

- a) Berrerortzea
- b) Prezioa
- c) Eskatutako titulazioa ez izatea

2.- Kirol-arloko diziplina-ahalmena baliatuz, eta gertakarien izaerari, erantzulearen inguruabarrei, arau-haustearen ondorioei zein bestelako ingu-

ruabar astungarri edo aringarriei erreparatuta, egoki irizten duten graduan ezarri ahalko dute zehapena diziplina-organoek.

**89. artikulua.-** Kirol-arloko diziplina-erantzukizuna iraungiko da betiere:

- a) Zehapena betetzean.
- b) Arau-hausteak preskribitzen duenean.
- c) Zehapenak preskribitzen duenean.
- d) Arau-hauslea hiltzean.
- e) Zehapena jaso duen kirol-entitatea desegitean.

**90. artikulua.-** 1.- Arau-hauste larriek urtebeteren buruan preskribituko dute, larriek sei hilabeteren buruan eta arinek hilabeteren buruan. Arau-haustea gertatutako egunean bertan hasiko da zenbatzen preskripzio-epea.

2.- Preskripzio-epea eten egingen da zehapen-prozedura abiatzen den egunean, baina erruztatuari ezin egotzizko arrazoiak direla-eta prozedura hori bi hilabetez geldiarazita badago, berriro ere hasiko da dagokion epea zenbatzen.

**91. artikulua.-** 1.- Diziplina-organo eskudunek ezarritako zehapenak urtebeteren buruan preskribituko dute, baldin eta arau-haustea oso larria izan bada, sei hilabeteren buruan larria bada eta hilabeteren buruan arina bada.

2.- Zehapena ezarri zuen ebazpena irmo egin eta biharamunean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea, edo haren betetzea hautsi zen egunetik baldin eta betetzen hasia bazen.

### III. kapitulua Prozedura

**92. artikulua.-** 1.- Edozein arau-hauste mota egiteagatik zehapenak jarri ahal izateko, espediente bat abiarazi beharko da, erregelamendu bidez ezarritako prozedurarekin bat.

2.- Edonola ere, diziplina-prozedurek ondokoak bilduko dituzte gutxienez ere:

a) Epaille eta arbitroek kirol-arloko diziplina ahalmena dute partida, proba edo lehiaketetan bertan, kirol-mota bakoitzeko erregelamendurekin bat, eta ezarri egin beharko da kasuan-kasuan erreklamazioak ondotik egiteko sistema. Betiere, partida, proba edo lehiaketako epaille eta arbitroek sinatutako aktak beharrezko dokumentu izanen dira kirol-arloko diziplinazko arau-hausteen proba multzoan.

Halakorik eskatzen duten kirol-moten kasuan, kirol-arloko diziplinazko arau-hausteak balioeste-

an epaille eta arbitroek esaten dutena egiazkotzat joko da, non eta ez den ageriko akats materialik gertatu edo aurkako frogarik aurkeztu.

b) Euren izaera dela-eta kirol-arloko diziplina-organoen berehalako erabakia beharrezkoa den kirol-lehiaketa edo probetan, diziplina-organo horien esku-hartze azkarra eta interesdunek erreklamazioak egiteko eta entzunak izateko duten eskubidea bateragarri egingen duten presako prozedurak ezarri ahalko dira.

c) Lehiaketa eta jokoko arauak hausteagatik zehapenak ezartzeko aplikatzekoa den prozedura arruntak bateragarri egin beharko ditu lehiaketaren garapen normala eta interesdunek errekurtsoak jartzeko eta entzunak izateko duten eskubidea.

Berme horiek berak ezarri beharko dira kirol-arloko gainontzeko diziplina-zehapenetan bideratuko den prozedura berezian.

d) Kirol-arloko diziplina-prozeduretan, interesduntzat joko da pertsona oro, baldin eta hartutako erabakiak bere aldeko zein bere aurkako bidezko interesak, betebeharrak zein eskubideak sortu baditu.

**93. artikulua.-** Kirol-arloko diziplina-organoek bertan behera utziko dute diziplina-prozedura, harik eta ebazpen judiziala eman arte, baldin eta diziplina-prozedura eragin duten ekintzak direla-eta prozedura penala abiatu dela badakite.

**94. artikulua.-** Federazio eta gainontzeko kirol-entitateek ondokoak ezarri beharko dituzte euren estatutu eta erregelamenduetan, kirol-diziplina dela-eta, foru lege honetan ezarritakoarekin bat etorritz:

a) Arau-hausteen sistema tipifikatua, kirol-mota bakoitzeko arauekin bat datorrena eta arau-hausteak larritasunaren arabera sailkatuko dituen.

b) Arau-hauste bakoitzari dagozkion zehapenen tipifikazioa, bai eta arau-hauslearen erantzukizunaren aringarri edo astungarri izan daitezkeen inguruabarrak eta erantzukizun hori iraungitzeko baldintzak ere.

c) Ekintza beragatik bi zehapen jartzeko debekua.

d) Atzeraeragineko ondorioa izatea arauak baldin eta erruztatuaren aldekoak badira.

e) Zehapena jartzeko debekua baldin eta arau-haustea egin eta gero tipifikatu bada arau-hauste hori.

f) Zehapenak ezartzeko diziplina-prozedurak.

g) Ezarritako zehapenen aurkako errekurtsosistema.

#### IV. kapitulua Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea

**95. artikulua.-** 1.- Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea da kirol-arloko diziplinako organo nagusia Foru Komunitatean, eta hark erabakitzen du, azken buruan, bere eskumeneko diziplina-aferei buruz.

2.- Kirol-arloan eskumena duen Departamentuari atxikia dago, baina harekiko zein federazioekiko eta gainontzeko kirol-entitateekiko independentziaz jarduten du.

**96. artikulua.-** 1.- Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeari dagokio Nafarroako kirol-federazioetako diziplina-organoei hartutako erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertu eta ebaztea, erregelamendu bidez ezarritako epe, modu eta kasuetan.

2.- Federazioko ordezkariak eta gobernu-organok hautatzeko hauteskundeak direla-eta Nafarroako kirol-federazioetako hauteskunde-batzordeen erabakien aurka aurkezten diren errekurtsioak aztertu eta ebaztea.

3.- Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeari dagokio orobat beste edozein egite edo ez-egite ebaztea, baldin eta kirol-jardueraren baitan duen garrantzia dela-eta Nafarroako Kirol Institutuak zein federazioek eskatuta ala ofizioz jorratzea egoki irizten badu.

4.- Erregelamendu bidez ezarriko dira batzordearen barne funtzionamenduari buruzko arauak zehapen-prozedurak bideratzearen.

5.- Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordearen ebazpenek kirol-bideari amaiera ematen diote. Ukitutako federazio eta erakundeei dagokie horiek betearaztea, haien ardurak baita horiek benetan eta zorrotz betetzen direla zaintzea.

**97. artikulua.-** 1.- Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordea bost kidek osatuko dute. Horietatik lau zuzenbidean lizentziadunak izanen dira, eta beste bat gorputz-hezakuntzan lizentziaduna. Idazkari bat ere izanen da, hitza bai baina botorik gabe.

2.- Kirol-arloko eskumena duen Departamentuko kontseilariak izendatuko ditu batzordekideak, Nafarroako Kirol Kontseiluak onetsi ondotik. Honela hain zuzen ere:

a) Bi kide Nafarroako Kirol Kontseiluko kideek proposatuta; horiek ez dira kirol-federazioen ordezkari izanen.

b) Kide bat Nafarroako Kirol Kontseiluko kideek proposatuta; horiek Nafarroako kirol-federazioen ordezkari izanen dira.

c) Bi kide Nafarroako Kirol Institutuak proposatuta; horietako bat izanen da gorputz-hezakuntzan lizentziaduna.

3.- Bost kide titular horiez gain, kirol-arloko eskumena duen Departamentuko arduradunak ordezkari bat izendatu ahal du arestiko hiru atal horietariko bakoitzeko, gaixotasun-, absentzia- edo hutsune-kasuetarako. Halaber, Nafarroako Kirol Diziplinako Batzordeko idazkaria izendatuko du, organo horretan hitza bai baina botorik gabe arituko dena.

4.- Batzordekide izatea ohorezko kargua da, eta hortaz, jarduerak berak sortutako gastuak baino ez ditu sortaraziko.

5.- Batzordekideei legeria indardunak ezarritako abstentzio-, errefusatzeko- eta bateraezintasun-kausak aplikatuko zaizkie.

6.- Batzordekideen agintaldia lau urtekoa izanen da, urte olinpikoekin bat etorritik. Agintaldia luzatzea badago.

7.- Erregelamendu bidez ezarriko dira kideak hautatzeko prozedurari eta barne funtzionamenduari buruzko arauak.

#### Xedapen iragankorrak

**Lehena.-** Nafarroako kirol-federazioek foru lege honetan xedatutakora egokituko dituzte euren estatutu, zuzendaritza-organok eta funtzionamendua oro har, honek indarra hartu eta urtebeteko epean.

**Bigarrena.-** Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek urtebeteko epea izanen dute foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, arkitektura-oztopoei buruz xedatutakora egokitu ditzaten euren kirol-instalazioak.

#### Azken xedapenak

**Lehena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatzeko behar adina xedapen eman dezan.

**Bigarrena.-** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.





---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko administrazio orokorraren (Barne Ministerioa) eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (Lehendakaritza Departamentua) artekoa, Foru Komunitatean espetze berri bat eraiki eta finantzatzeko**

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-ritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da: Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko administrazio orokorraren (Barne Ministerioa) eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (Lehendakaritza Departamentua) artekoa, Foru Komunitatean espetze berri bat eraiki eta finantzatzeko.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Lankidetzaren hitzarmena, Estatuko administrazio orokorraren (Barne Ministerioa) eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (Lehendakaritza Departamentua) artekoa, Foru Komunitatean espetze berri bat eraiki eta finantzatzeko**

.....-n, 2000ko .....-ren  
.....-an.

BILDURIK

Alde batetik, Barne ministro Jaime Mayor Oreja jaunak, Ministroen Kontseiluak 1998ko uztailaren 3an (uztailaren 16ko EAO) hartutako Erabakiari jarraikiz, eta beste aldetik, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Rafael Gurra Induráin jaunak, biak beren karguen ordezkari gisa eta behar besteko eskumenarekin aritzen direla,

ADIERAZI DUTE

Lehendabizikoa.

Iruñeko gaur egungo espetzea 1901ekoa da; zaharkiturik dago eta beraz, komenigarria da ahal

den eperik laburrean berri bat eraikitzea, espeteen arloan Nafarroan dauden beharrei erantzun ahal izateko.

Bigarrena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa lankidetzan aritu izan ohi da Estatuko Administrazio orokorrarekin espeteen gaiarekin lotura zuzena duten eginkizunetan. Horrela, nabarmendu behar da Iruñeko egungo gartzela Foru Diputazioaren, Iruñeko Udalaren eta Iruñeko Barruti Judizialeko gainerako udalen diru ekarpenekin eraiki zela.

Hirugarrena.

Estatuak eskumen osoa du espeteen arloko legediaren gaietan, Konstituzioaren 149.1.6. artikulua emana.

Laugarrena.

Bestalde, 1992ko otsailaren 21eko Ministroen Kontseiluak erabaki zuen Espeteetako Azpiegitura eta Ekipamenduen Estatuko Sozietatea sortzea, Espeteak Amortizatu eta Sortzeko Plana gauzatzeko beharrezkoak ziren jarduerak betetzeko, zehazki zentro horiek kokatu, eraiki eta besterentzeari dagokion guztia.

Bosgarrena.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 58.1.a) artikulua adierazten du Nafarroari dagokiola espeteen arloko Estatuko legedia betetzea, gai honetan oraindik eskualde-kerarik egin ez bada ere.

Era berean, aipatu Foru Komunitateak maila desberdinetako eskumenak ditu espetze baten ohiko kudeaketarekin barne-barnetik lotutako beste gai batzuetan, hala nola, kirolaren sustape-

nean, gizarte laguntzan, gazteriaren arloko politikan eta osasunean, besteak beste.

**Seigarrena.**

13/1982 Lege Organiko horren 65. artikulua aurreikusten du Estatuko Administrazio Orokorrek eta Foru Komunitateko Administrazioak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ahal izanzen dituztela bi alderdien interesekoak diren obra eta zerbitzuak kudeatu eta betetzeko.

Estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onetsi zuen abenduaren 26ko 28/1990 Legeak, bere aldetik, bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen du Estatuak eta Foru Komunitateak Nafarroan egin beharreko inbertsioak batera finantzatzeko akordioa egin ahal izanzen dutela, inbertsio horien izaera edo ezaugarriak direla-eta finantzazio bide horiek erabiltzea komeni denean.

Aurreko guztian oinarriturik, ondokoa erabaki dute

**KLAUSULAK**

**Lehenbizikoa.** Xedea.

Lankidetzaz Hitzarmen honen xedea da Nafarroan espetze berria eraiki eta kudeatzeko bete beharreko jarduketaren planean Foru Komunitatearen Administrazioak izanzen duen partaidetza zehaztea. Espetze horrek 400 presorentzako (gizon eta emakumeak) adina toki izanzen du.

**Bigarrena.** Kokapena.

Espetze berriaren kokapena bi administrazioek batera hautatu eta erabakiko dute, baina Foru Komunitateak jarriko ditu lurak, Iruña inguruan.

**Hirugarrena.** Proiektua.

Nafarroako espetze berriaren proiektu arkitektonikoa Hitzarmen honen 9. klausulan aipatzen den batzorde paritarioak aurretik egindako beharren azterketaren arabera egingen da. Batzorde paritario horretan Estatuko Administrazio Orokorren ordezkariak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak hartuko dute parte.

**Laugarrena.** Finantzazioa.

Espetze berria Estatuko Administrazio Orokorrek finantzatu du, eta haren kostua 3.000.000 pezetakoa izanzen da.

Halere, Foru Komunitateko Administrazioak proiektua garestituko duten hobekuntzak egin nahi izanez gero, eta horrek Estatuko Administrazio Orokorrek aplikatzen dituen modulo orokorretan zentro mota honetarako ezartzen duen zenba-

tekoa gainditzea badakar, soberakin hori Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu du.

Bi administrazioek hitzarmen hau betetzeko behar den dirua bideratu du aurrekontuetatik.

**Bosgarrena.** Exekuzioa.

Estatuko Administrazio Orokorren dagokio espetze berriaren proiektua egiteko agintzea, baita obraren adjudikazioa eta zuzendaritza.

**Seigarrena.** Espetxea kudeatzeko proiektua.

Bi administrazioek espetze berriaren kudeaketa integralerako proiektu bat egiteko konpromisoa hartzen dute, hirugarren eta bederatzigarren klausulek aipatzen duten batzorde paritarioaren bitartez eta eraikuntza egiten den bitartean. Proiektu horrek espetxea funtzionamenduan jartzeko eta haren antolaketarako behar diren alderdi guztiak bilduko ditu (lan arlokoak, hezkuntza, osasuna, kirola, etab.), eta halaber, horien balorazio ekonomikoa.

Proiektua Nafarroako Foru Komunitateak hartuko du bere gain espetxeen arloko legedia betetzeko gaietan eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzen bazaizkio.

**Zazpigarrena.** Iruñeko gartzela zaharra.

Espetze berria behin abian jarrita, Foru Komunitateko Administrazioak komenitzat jotzen duenerako erabili ahal izanzen du Iruñeko gartzela, ondarearen gaineko Estatuko eta Foru Komunitateko legediaren aurreikuspenekin bat.

**Zortzigarrena.** Indarraldia.

Hitzarmenak Estatuko Administrazioak espetze berria eraikitzeako obrak onartu arte izanzen du indarra.

Nolanahi ere, hitzarmena aurretik amaiarazitza hartu ahal izanzen da, bi alderdiak ados baldin badaude, edo alderdietako batek eginbeharrak behin eta berriz betetzen ez baditu.

**Bederatzigarrena.** Jarraipen Batzordea.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da, bi administrazioek ordezkari kopuru bera izanzen dutela bertan, eta batzorde hori arduratuko da hitzarmena bete eta garatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebazteaz.

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak organo kolegiatueterako aurreikusitakoak zuzenduko du batzorde hori, espreski ezaririk ez dauden gaietan.



**Hamargarrena. Izaera.**

Hitzarmen hau administratiboa da eta haren edukia dela-eta sor daitezkeen eztabaidak administrazioarekiko auzibideen jurisdikzio ordenean

ebatziko dira.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, bi alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, hasieran esandako toki eta egunean.

## **Lankidetza hitzarmena, Administrazio Publikoetako Ministerioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 1996ko abenduaren 23ko 2. akordioari bildutako prestakuntza etengabeko planak garatzeko**

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-eritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da: Lankidetza hitzarmena, Administrazio Publikoetako Ministerioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 1996ko abenduaren 23ko 2. akordioari bildutako prestakuntza etengabeko planak garatzeko.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Lankidetza hitzarmena, Administrazio Publikoetako Ministerioa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 1996ko abenduaren 23ko 2. akordioari bildutako prestakuntza etengabeko planak garatzeko**

.....-n, 2000ko .....-ren  
.....-n honako hauek

BILDU DIRA

Alde batetik:

Jesús Posada Moreno jauna, Administrazio Publikoetako ministroa den aldetik, Ministroen Kontseiluak 1998ko uztailaren 3an hartutako erabakiaz daukan eskumenaz baliatuta. Erabaki hori Lurralde Administrazioetarako Estatuko Idazkaritzaren 1998ko uztailaren 8ko ebazpen batez argitaratu zen.

Beste aldetik:

Rafael Gurrea Induráin jauna, Nafarroako Gobernuako Lehendakaria eta Barne kontseilaria, apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 46.5 artikulua ematen ditzion ahalmenez baliatuta.

Bi aldeek elkarri ezagutzen diote eskumen eta ahalmen osoa lankidetza hitzarmen hau sinatzeko eta

**ADIERAZI DUTE**

Lehena. Konstituzioaren 149.1.18gn. artikulua Estatuari aitortzen dio administrazio publikoaren araubide juridikoaren oinarrien gaineko eskumen eskusiboa, betiere administratu guztiak era berean tratatuko direla bermatuz.

Horri jarraituz, eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari buruzko Lege Organikoaren 49.1.e) artikuluan ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio, Estatuko araupetze orokorraren esparruan, Komunitate horretako Administrazioaren araubide juridikoa legez garatzea eta betearaztea.

Bigarrena. Prestakuntza Etengabearen Batzorde Orokorra dela administrazio publikoetako prestakuntza etengabea antolatuko duen osaketa paritarioko organoa.

Batzorde horren eskumen berezia da prestakuntza etengabeko planak finantzatzeko dauden fondoak nola banatuko diren erabakitzea.

Hirugarrena. 2000. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak eta 1996ko abenduaren 19ko prestakuntza etengabeari buruzko Hiru Aldeen arteko Akordioak administrazio publikoetako prestakuntza etengabearen finantzaketa artikulatzen dute ekitaldi honetarako.

Diru kopuru hori Enplegu Institutu Nazionalak transferituko du, 1996ko abenduaren 19ko presta-

kuntza etengabeari buruzko Hiru Aldeen arteko Akordioaren 4.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**Laugarrena.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Prestakuntza Etengabeko Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustaturiko Prestakuntza Etengabeko Plana onesten duela, eta Prestakuntza Etengabeko Batzorde Orokorriari igorri diola 2000. urterako Kudeaketa Akordioan ezarritako irizpideen esparruan aintzat har ditzan.

**Bosgarrena.** Behin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustaturiko Prestakuntza Etengabeko Plana behin betiko onetsi ondoren, 1996ko abenduaren 23ko administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 2. akordioaren V. kapituluko 16. artikuluko d) letran xedatua betez, plan hori 1996ko abenduaren 23ko administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 2. akordioaren esparruan prestakuntza planak garatzeko arau-oinarriak onesten dituen Ministerio Aginduan ezarritakoari jarraituz garatu beharko da.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona

#### KLAUSULAK

**Lehen.** Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honek helburu du Administrazio Publikoetako Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak –Lehendakaritza eta Barne Departamentuak ordezkatua– hitzarmen bat egitea Administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 2. akordioaren araberrako prestakuntza etengabeko planak garatzeko.

**Bigarrena.** Aplikazio eremua.

Nafarroako Foru Komunitatea da hitzarmenaren aplikazio eremua, eta eragina izan dezake Foru Komunitateko lurraldean lan egiten duten enplegatu publikoengan, haien parte hartzea Prestakuntza Planean aurreikusita badago.

**Hirugarrena.** Administrazio Publikoetako Ministerioak, Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalaren bitartez, APINeko zuzendariak –abenduaren 20ko 2617/1996 Errege Dekretuak aurrekontuaren arloan ematen dizkion eskumenak

erabiliz– emandako ebazpenaren bitartez eta bere aurrekontuaren kargura, hitzarmen honen helburu den Prestakuntza Etengabeko Plana finantzatuko du, 44.794.623 pezeta, hain zuzen ere. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izendaturiko entitate sustatzaileari, aipatu zenbatekoaren barruan, 1996ko abenduaren 23ko administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 2. akordioaren V. kapituluko 16. artikuluko d) letran aurreikusitakoari jarraituz onetsitako Prestakuntza Etengabeko Plana garatzeko behar den zenbatekoa transferituko zaio.

**Laugarrena.** Entitate sustatzaileak Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak libratutako fondoak erabiliko ditu onetsitako Prestakuntza Etengabeko Planean aurreikusitako prestakuntza ekintzak egiteko eta garatzeko.

**Bosgarrena.** Aurreko klausulak aipatzen duen entitate sustatzailea hitzarmen hau sinatzen duen Foru Komunitateko kontseilariak izendatzen duena izanen da.

**Seigarrena.** Hitzarmen honen jarraipena Prestakuntza Etengaberako Batzorde Orokorrek egingen du, ezertan kendu gabe Administrazio publikoetako prestakuntza etengabeari buruzko 2. akordioaren 17. artikuluan ezarritakoa.

**Zazpigarrena.** Hitzarmen hau aplikatzean edo interpretatzean gerta daitezkeen gorabeherak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esku geratuko dira.

**Zortzigarrena.** Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak kreditatuko du jarduera egin dela, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituz.

**Bederatzigarrena.** Hitzarmen honek 2000ko aurrekontu ekitaldian zehar izanen du indarra.

Jasota gera dadin eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, bi aldeek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, eta bakoitzak bat gorde du, hasieran esandako toki eta egunean. Administrazio Publikoetako ministerioa, Jesús Posada Moreno jauna. Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Barne kontseilaria, Rafael Gurrea Induráin jauna.

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2000ko maiatzean egindako bilerak

### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

2, 8, 15, 16, 22 eta 30ean.

#### OSOKO BILKURA

18an:

– “Gure konpromisoa: berdintasuna” manifestuari atxikitze erabakia berrestea.

– Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Osasun Batzordeak onetsitako irizpena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege Proposamenari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea. Proposamenak helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen lanbide karreraren sistema arautzen duen Foru Lege Proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Foru Lege Proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko toki entitate eta erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpreetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkinak gizarteratzeko plan bat egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako lehenengo

zikloa (0-3 urte) abiatzeko arauak egiterakoan irizpide jakin batzuk kontuan har ditzan.

24an:

– Jabeldura, hizkuntz politikari buruz Nafarroako Gobernuak zer jarrera eta zer asmo duen jakiteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat irizpide eta epe kontuan har ditzan 2001-2004 Etxebizitza Plana egiterakoan.

– Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da datozen lau urteetarako turismoari buruzko plan estrategikoa egin dezan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratisten Erregistro Ofiziala sor dezan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ubideko obretatik gertu dagoen Nafarroako herriren batean bulegoak jar ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEko goi-mailako ikasketen garapena arautuko duen lege proiektu bat egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako paradore turistikoaren sarea sor dezan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazari eta abeltzaintzako doikuntzak egin ditzan tributu arloan hurrengo errenta kanpainan.

